

AUTODETERMINAZIOA, DESGAITASUNA ETA LAGUNTZAK

Xabier Etxeberria Mauleon

Abiapuntua

Ezin besterenduzko duintasuna dugun subjektuak garen aldetik, pertsona guztiok dugu hauexetarako eskubidea:

- autodeterminaziorako dugun gaitasuna aintzatesteko, hain zuzen errespetuan adierazia;
- ahal den neurrian autodeterminazioa indartzeko, laguntza egokiak emanez;
- autodeterminazio ahuldua hartzeko, beharrezko zaintzen bidez, eta beharrezkoa balitz, ordeztuko erabakiak har daitezke, etikaren aldetik zuzenak;
- jakin behar da, jakina, autodeterminazioa erabiltzeko erantzukizunarekin bat datorrela edo horri datxekiola autodeterminazioa erabiltzeko eskubidea.

Hori guztia aztertuko dugu orain, baina betiere bereziki kontuan izanda autodeterminazioa nabarmen ahulduta duten pertsonen egoera.

Zenbait kontzeptu argitu beharra

Gizakion existentzian gezurrezkoa da honako dilema hauek planteatzea: independentzia/dependentzia, autodeterminaziorako gaitasuna/ezgaitasuna. Gure biografian hainbat modutan gorabeherak izan dituzten aldagaiak dira, eta beti ageri dira bi aukerak.

Horregatik, gure ideala ez da independentzia, interdependentzia baizik, konplexua eta biografiaren aldetik pertsonalizatua eta aldakorra, elkartasunean dependentziak eta interdependentziak laburbilduko dituen ahalik eta hobekien eta une bakoitzean. Hiru kategoria argitu behar dira:

- Independentzia ez da nahastu behar besteren laguntzarik behar ez izatearekin -asko zor diogu elkarri-, baizik eta besteren menpe ez egotea dela ulertu behar da. Inork ez du inoiz hori pairatu behar, edozein egoeratan egonik ere.
- Dependentzia ez da inorekiko mendetasuntzat hartu behar, baizik eta gure ahulezia eta mugak onartzeko modutzat baizik, betiere gure elkartasunaren baitan kokatuta.
- Elkarrekikotasuna ageri da dependentziak eta independentziak solidarioki biltzen dituen interdependentziaren atzean; elkarrekikotasunak

baliokidetasuneko kontratu-erlazio tipikoak gainditzen ditu, eta asimetrikoa da, kalkuluarekin zerikusirik izan gabe. Gure inguruabarren eta posibilitateen arabera ageri zaizkigu ondasun materialak nahiz ez-materialak ematearen eta jasotzearen gaineko gorabeherak. Autonomiarako gaitasuna ahulduta duen pertsonak ere, laguntzen beharra izateaz gain, zerbait baliotsua emateko posibilitatea du beti.

Gaitasun kognitibo-arrazionalak agerian ahulduta daudenean, gaitasun kognitibo-afektiboek (adibidez: intuizio moralei) jarri beharko zaie arreta aurrerantzean ere:

Komeni da bereiztea pertsonaren askatasuna erabiltzearen inguruko ordezkari- eta ordezen-erabakiak:

- Egia da, RAEren arabera, edozein “sustitución” terminoa “representación” terminoaren ordeza erabil daitekeela, baina, hala ere, egia da ere inoren ordezkariak perbertitu egiten direla behartutako ordezen gisa egiten direnean (adibidez: “aginduta” hautaturiko ordezkariak).
- Oinarri hori izanik, bestearen ordezkariak gertatzen dela ulertu behar da soilik haren izenean hartzen denean erabakia berak egoerarako ezarritako ildo argien eta askeen arabera. Hartara, egoera interpretatzeko eta egokitzeko marjina txikiak baino ez dira utzi behar. Esaterako, “aurretzako borondatea” dagoenean. Horrelako ordezkariak autodeterminazioa erabiltzeko beste era bat da.
- Nire aburuz, ordezena esan behar da –gauzak diren bezala esatearren- baldin eta gure erabakiaren menpe dagoen pertsonaren jarraibideak argi ez badaude, edo inguruabarrak direla-eta jarraibide horiek kontuan ez hartzea komeni dela irizten diogunean. Hots, ordezturiko pertsonaren bizitzaren etorkizuneko egoera aintzat hartu nahian, interpretaziorako prozesu garrantzitsuak behar ditugunean.
- Onartu beharra dugu gizakiaren izaerari datxekiola beste batzuek gure bizitzako edozein alditan gure ordeza erabakia hartu behar izatera irekita egotea. Soilik moraltasun baldintzak zehazki definitu eta onartu besterik ez da egin behar. Oso modu orokorrean adierazita, kasu hauetan behar da ordezena: a) beharrezko erabakiak hartu behar direnean eta balizko laguntza guztiak aintzat hartuta, bideraezina bada kasuan kasuko pertsonak erabakia hartzea, erabakia hartzeko gaitasun mugatua duelako; b) erabakiek pertsonaren duintasunerako errespetua adierazten badute; c) zintzoki pertsonaren ongizate hobera bideratzen badira erabakiak. Hain irizpide orokorrak izanik, azalpen gehiago

eman beharra dago. Autodeterminaziorako laguntzen egoeraren ordezkartzaren baitan jarraitzen direneko kasuetan.

Autodeterminazio motak eta autodeterminazioa ahultzen denean eman beharreko laguntza

Lehen bereizketa

Bereizketa:

- *Autodeterminazioa*: edo erabaki kontzientea eta askea hartuta gure subjektibotasunari gehitzen diogun determinazioa, dentsitate morala izan zein ez (adibidez: praken kolorea aukeratzea). Horrek besteen askatasunerako eragozpena ez ekartzea besterik ez da galdatzen etikaren aldetik.
- *Autonomia*: edo autodeterminazioa: horretan jartzen dugu etikoki zentzuzkoa den araua egiteko borondatea (adibidez: prestakuntza ikastarora joatea).
- *Egiazkotasuna*: edo autodeterminazioa: saiatu egiten gara gure erabakiak trebatuz joan daitezen gure bizitzan, halako moldez non gure bizitzan izan nahi dugunarekin bat datorren nortasuna emango baitigute (bizitza-plana, uztartzen diren dimentsio garrantzitsuetan).

Autodeterminaziorako gaitasun ahuldua duten pertsonentzako laguntzetan aplikatzea bereizketa.

- Kritikatu egin behar da autodeterminaziorako gaitasunik ez duten pertsonentzako laguntzak dentsitate moral berezirik gabeko erabakietara bideratzea (adibidez, jantziak eta aisialdia), nahiz eta beren eguneroko bizitzarako beharrezkoak eta garrantzitsuak izan. Ahal den neurrian, haien autodeterminazioa hartu eta bultzatu behar da, autonomia gisa (adibidez: gizarte konpromisoa GKE batean) eta egiazkotasun gisa (adibidez: zentzu aukera, aukera zehatzak birkokatzea bizi-proiektuan).
- Autonomiari dagokionez, garrantzizkoa da autodeterminazio ahula duen pertsona aintzatestea eta laguntzea bere buruarekin betebeharrak garrantzitsuak dituen subjektutzat hartzeko, harremanetan izaten diren pertsonekin eta gizartearekin, *definitzeko gaitasuna duen pertsonatzat har dezan bere burua*. Arduratsua sentitzea eta arduratsua izatea, ahal den neurrian eta ahal den bitartean, oso garrantzitsua da gure autoestimurako eta identitate moralerako.

- Egiazkotasunari dagokionez, beren idealekin bat datozen bizi-planen definizioetan eta plan horien betetzen lagundu behar zaie pertsonei, justizia sozialak babestu behar dituen posibilitateekin betiere: planak bereizten laguntzea eta planok betetzen laguntzea. Ohar bat adinekoei buruz. Egia da egiazkotasunak dakartzan erabakien lotura gehienak iraganeak diren, norberaren historia etorkizunerako zerbait baino. Baina hain zuzen horrexegatik, zahartzaroan, autodeterminazioaren alderdi bat da, bereziki trinkoa, zeren eta norberaren iragan horren ebaluazioa egiteko kutsuak biltzen baitu, interesatuari hauxe ahalbidetuko diolakoan: gazi-goxoak izanik ere, merezi izan duela bizi izan duen bizitzak. Oso garrantzizkoa da adinekoari laguntzea, berrikuspen hori traumatikoa izan ez dadin, beharrezkoa denean bere buruaz errukitu dadin, geratzen zaion etorkizunean eraiki dezakeen horretara *irekita egoten* jarrai dezan. Arlo horretan, adinekoak bere biografia moralaren berri emateko kontakizuna arretaz entzun eta benetako elkarriketara irekita egon beharra dago. Izan ere, horrek guztiak funtsezko tokia du laguntza-prozesuan, non ematean prest egon behar baita jasotzera ere.
- Egiazkotasunaren eremuko ordezen-erabakietan, saiatu egin behar dugu erabakitakoa bat etor dadin pertsonak etorkizunerako nahi zuenarekin (adibidez, biziaren amaieran laguntzea).

Bigarren bereizketa

Bereizketa:

- *Erabakietarako autodeterminazioa-autonomia* edo erabakiak askatasunez hartzeko gaitasun psikikoa (adibidez: bikotekidea hartzea).
- *Ekintzak egiteko laguntzarik behar ez izatea* edo erabakia betearazteko beharrezko trebezia (adibidez, janztea).

Laguntzetan aplikatzea:

- Erabakia hartzeko gaitasunaren arabera neurtu behar da autodeterminaziorako gaitasuna.
- Erabaki hori errespetatu egin behar da baldin eta besteen autodeterminaziorako eta justiziarako kaltegarria ez bada.

- Autodeterminaziorako gaitasuna hautsita dagoenez, autodeterminazio hori ahal den moduan indartzera bideratu behar dira oinarrizko laguntzak, trebeziara baino gehiago.
- Baldin eta erabaki autonomoarekin batera trebeziarik ez badago, erabakia legitimoa bada moralaren aldetik, bigarrena ahal den neurrian egin behar da, justiziagatik, laguntza egokiak erabiliz.
- Ez dira autodeterminazioa eta trebezia nahastu behar (adibidez, kaletik bakarrik ibiltzeko laguntzarik behar ez izatea), autodeterminazioari dagokion erabakia gauzatzeko bi modu baitira.
- Hortaz, pertsona autonomoaren baimena behar da trebezietan gaitzeko edo ordeztzeko, eta soilik justizia distributiboarekin zerikusia dutenak inposatu dakizkioke, behar ez diren kargak galarazten baitizkie besteei (bazkaltzeko laguntzarik behar ez izatea). Halakoetan, konbentzitzen saiatzea izan behar da oinarrizko apustua, zintzotasunez eta enpatiaz errespetatuz.
- Pertsonaren borondatea ordeztzeko erabakiak hartzea soilik planteatu daiteke baldin eta laguntzen bidez gainditzerik ez dagoen autodeterminaziorako muga badago, non pertsonarentzako ondasun garrantzitsua dagoen jokoan, betiere ondasun hori lortu nahian (bere ondasunak administratzea).

Hirugarren bereizketa

Erabakiak hartzeko autodeterminazioan, honako hauek bereizi behar dira:

- *Autodeterminaziorako egungo gaitasuna*, edo erabakiak hartzeko benetako gaitasuna.
- *Balizko gaitasuna*, eskubidez jaso daitezkeen laguntza egokiak jasotzen badira lor daitezkeena.

Gaitasun ahuldua duten pertsonentzako laguntzetan aplikatzea:

- Beren autonomia potentzialaren arabera definitzen da gaitasuna, eta injustizia da funtsean egungoarekin bat ez badator.
- Hortaz, adinekoak ordeztzeko balizko erabakien erreferentzia ez du izan behar benetako autonomiak, balizkoak edo potentzialak baizik.

- Gaitasun mugatua duen pertsonak eskubidea du bere autodeterminazio potentziala bere benetako autodeterminazioarekin bat etortzeko laguntzak gauzatu daitezzen (adibidez, oinarrizko jakintza informatikoak bere ondasunak administratzeko), eta bere esku dagoen orotan laguntzeko ardura izango du.
- Kontuan izan behar da autodeterminazioa ez dela gaitasun abstraktua, testuinguruko neurri ona baizik: Argi eta garbi handiagoa da testuinguru ezagunetan eta berez laguntza gisa funtzionatzen duten testuinguru barneratuetan bizi baditugu (familiako, kulturako, gizarteko testuinguruetan, testuinguru fisikoetan, etab.). Ingurune berrietarako testuinguru bideratzaileak eta horiek ezagutzeko testuinguruak sortu beharra (egoitzetako barneratzeak).

Laugarren bereizketa

Berezi egin behar dira erabakiak hartzeko gaitasuna eta erabakiari eusteari buruzko balorazioa esku hartzeko edo bizikidetzako prozesu luzeetan. Egoki dago azalduta honako honetan: Bizkaiko Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea. “Informazioa eta adostasuna emateko prozesua gizarte zerbitzuetan: gomendio etikoei buruzko gida”

Autodeterminazio eremuak eta autodeterminazio ahulduetan laguntzea

Eremuak

Guztiok biltzen dugu geure buruan banako subjektuak izatea, geure erlazioekin, igurikapenekin, bizipenekin, ekimenekin, sufrimenduekin, etab., baita erkidego politikoan txertaturiko herritarrak izatea ere, erkidego horretan parte hartu beharra dugula. Sarri askotan, norbaitek autodeterminazio gaitasun ahuldua duenean, banako subjektua izatera daude bideratuta gehienbat laguntzeko esfortzuak.

Baina horrek, beste behin, posibilitateei buruzko ikuspegi pobrea du. Adinekoaren autonomiak irekita egon behar du herritar izaerara; ez da soilik autonomia “pribatua”, autonomia publikoa ere bada. Horrek berekin dakarrena hobeto antzematen da autodeterminazioa gauzatzen deneko lau eremuak ezartzen direnean:

- norberaren intimitatearen eremu pribatua, familiarena eta lagunena; horietan hartzen dira bereziki –baina ez horietan soilik- harremanen bizitzarekin loturiko erabakiak.
- bizitza zibilaren eremu pribatua, bere babespeko elkarren arteko erlazioekin eta merkatuarekin zerikusia duten ekimenekin edo aukeraketekin, baita zentzuarekin lotutako erakundeekin ere, erlijiosoa zein sekularra izan;

- publikoa, gizartearen adierazpena den aldetik, non askatasuna erakundeetan parte hartzeko konpromisoekin abiarazten den, gizarte zibilekoak direnen aldetik, ongizate publikoa lortu nahi dute ongizate horren alderdiren batean (emakumeen eskubideak, garapena, eskubide zibilak, bakea, ekologia, etab.).
- publikoa, adierazpen politiko zorrotza den aldetik, non erabakiak Estatuko erakunde formalen baitan kokatzen diren, erakundeotan demokratikoki parte hartuta.

Autodeterminazioa-autonomia pertsonala benetan azaleratzen da lau eremuetan adierazten denean.

Autodeterminazio ahuldua duen pertsonen laguntzan aplikatzea

- Aurreratu nuen bezala, laguntzeko joera dago baina intimitatearen eremu pribatuan, eta muga askorekin, bizitza zibilaren eremu pribatuan; esaterako, soilik ondasun ekonomikoetan eta zentzuzko erakundeetako kide izateko laguntza erabilita.
- Horrek berekin dakar posibilitateak moztea eta beren autonomoaren alderdi publikoa ahultzea; izan ere, alderdi hori zuzenean lotzen du herritarrekin.
- Autodeterminazio ahuldua duen pertsonak herritar izateari eutsi dio. Autodeterminazioa-autonomia pribatua ahalik eta mailarik handienean erabiltzearekin batera, autonomia publikoa erabili behar da (eremu sozialean eta politikoan), horretan ere mailarik gorenean. Horregatik, eremu horietan ere eskaini behar dira estimuluak eta laguntzak, manipulaziorik gabe, eta horietan ordezen-erabakientzako (bozketak esan nahi da) tokirik ez dagoela jakinik.
- Herritartasuna maila politikoan eta sozialean modu aktiboan erabiltzea herritarren eskubide sozialak izatearekin uztartu behar da, eta beraz, beharrak bete eta gaitasunak indartzen dira. Autodeterminazio gaitasun mugatua duen pertsonaren bizitzako aldiaren arabera, garrantzitsuagoak izango dira batzuk besteak baino gehiago (hezkuntza, lana, pentsio duina, etxebizitza edo bizileku duina, osasunaren kalitaterako arreta, oinarritzko sarrerak bermatzea oro har pentsioekin, etxebizitza duina, egoera bakoitzerako gizarte zerbitzu egokiak...). Herritartasuna ez da agortzen bizirik gauden bitartean.